

MUNGIARRA

APIRILA ABRIL 2025 ~ 74. zk.

Mungia, hazkunde ekonomikoaren eta enpresa-barrikuntzaren motorra

Udal Aurrekonturik
handienak

Gura bako
bakardadearen ganeko
partehartze-azterketa
hasi da

Etorkizunerako
HAPO badoa
aurrerantza



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



2025ean Mungiak lehen aldiz eukiko dau 28 milioi eurotik gorako aurrekontua



Udalak 28.066.903,03 milioiko aurrekontua onartu dau 2025erako, igaz baino % 4,2 handiagoa, hain zuzen bere. Lehen aldiz, 28 milioi eurotik gorako aurrekontua izango da, eta honako hauxe dauka helburu: barriro bere biztanleak udal-politikearen oinarri nagusia izatea, kalidadeko zerbitzu publikoak sendotzea, udalerriko irisgarritasuna hobetzea eta tokiko garapenerako funtsezkoak diran arloetan inbersinoak egitea.

Era berean, aurten bere, udalak ez dauka zorrik, eta azpimarratzekoa da arlo guztiek behar besteko baliabideak eukiko dabezala euren proiektuak aurrera eroteke.

☞ *Mungia contará en 2025 con un presupuesto que supera por primera vez los 28 millones de euros. Un incremento del 4,2 % con respecto al año pasado.*

ARLOA	KOPURUA
ALKATETZA / ALCALDÍA	398.114,52€
BALIABIDE OROKORRAK / RECURSOS GENERALES	9.653.042,71€
EKONOMIA ETA FINANTZAK (ONGASUN) ECONOMÍA Y FINANZAS (HACIENDA)	532.598€
EUSKARA ETA KULTURA	1.498.800€
GIZATE EKINTZA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA BERDINTASUNA ACCIÓN SOCIAL, EDUCACIÓN, JUVENTUD E IGUALDAD	1.294.648€
KIROLAK / DEPORTES	2.414.351,85€
LURRALDEA (HIRIGINTZA ETA INGURUMENA) TERRITORIO (URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE)	10.878.748,95€
GARAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA DESARROLLO ECONÓMICO Y EMPLEO	1.299.200€
GUZTIRA	28.066.903,03€

Euskerearen sustapenerako plana onartu da datozen urteetarako



☞ *El Ayuntamiento aprueba el marco de actuación para la promoción del euskera en Mungia durante los próximos años.*

Azken urteetan gure herriaren eta herritarren hizkuntza-profila guztiz aldatu da. Errealidade barri horretan oinarrituta onartu ditu Udalbatzak datozen urteetarako euskera-planak:

- **Udalekoa bertakoa:** udalean, euskerea zerbitzu-hizkuntza dala bermatuko da, eta, horrezaz ganera, ahalegin handia egingo da, euskerea lan-hizkuntza izan daiten.
- **Herri-mailakoa:** egunero euskeraz bizitzeko aukerak sortzen segiduko dogun arren, beste lan-ildo nagusi bi be jorratuko dira: batetik, herritarrek ahalduz eta aktibetea eta, bestetik, herritarren euskeragaitasuna hobetzea.
- Plan horreek ikusteko, sartu hemen:
www.mungia.eus/eu/plan-estrategikoak

Mungia muestra su atractivo turístico en FITUR

Alaitz Erkoreka, alcaldesa, y Nagore Torre, concejala de Turismo, asistieron a FITUR (Feria Internacional de Turismo) en Madrid, donde pusieron en valor el atractivo turístico y el espíritu Cittaslow de Mungia.



☞ *Mungiak bere erakargarritasun turistikoa eta Cittaslow espiritua nabarmendu dauz FITURren.*

Eusko Jaurlaritzak Joseba Larruzea, udaltzaina, eta Mungiako Babes Zibila omendu dauz

Joseba Larruzeak, Mungiako udaltzainak, Eusko Jaurlaritzak ezohiko egintza edo jarduketakaitik emoten dauan 'Ikur gorria' jaso eban. Era berean, omenaldia bere eskaini jaken Mungiako Babes Zibileko udal-boluntarioei, euren urteetako zerbitzuagaitik.



☞ *El Gobierno Vasco homenajea a Joseba Larruzea, policía municipal de Mungia, con el "Distintivo Rojo" y al voluntariado de Protección Civil de Mungia por sus años de servicio.*

Mungiako KZgunea zure zerbitzura dago



KZgunea, Udalaren laguntzeagaz, hainbat zerbitzu eskaintzen dauz; euren artean, mungiarrek teknologia barrien inguruko prestakuntzea jasotea da nagusi. Ildo horretan, honako zerbitzuak eskaintzen dira: izapideak, nabigazinoa, tutoretzak..., baita garrantzitsuena bere: teknologia barrien inguruko prestakuntzea. Ganera, aurrez aurrekoa, urrunekoa

edo bideokonferentzia bidezkoa izan daiteke.

☞ *KZgunea de Mungia ofrece formación en nuevas tecnologías para todas las edades, ¡pásate!*

i
www.kzgunea.eus
Gasteiz kalea, 4

Priorizados los proyectos a realizar con los Presupuestos Participativos de 2025

Finalizada la segunda fase de los "Presupuestos Participativos 2025" con una participación de 492 mungiarras.

Los proyectos más apoyados fueron: nuevo espacio de ocio, reparación y mantenimiento de juegos infantiles, parque para jóvenes en Larreta, embellecimiento de fachadas mediante murales artísticos y un espacio de juegos con chorros de agua. Se destinarán 200.000 € para estos proyectos.



Aurrekontu parte-hartzaileetan aukeratu diran proiektuak: aisialdi eremu barria, umeen jokoen konponketa eta mantenua, gazteen parkea Larretan, fatxadak irudi artistikoen bidez edertzea eta ur-zurrusten jolasak.

Pausu handia egin da aurrera Hiri Antolamentuko Plan Orokorra onartzean

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) funtsezko tresna da udalerri baten etorkizuna planifikatu eta eraikitzeko. Eta gure herria, Mungia, lurzorua zelan antolatuko dan, zerbitzuak zelan bananduko diran eta baliabide naturalak zelan babestuko diran idazteko prozesuan murgilduta dago.

Erregularizazio-prozesu luzea da, baina Mungia hasia da ikusten zer izango dan bere etorkizuneko HAPOa; Udalak hasikera baten onartu dau bere hurrengo Plana, udalerriko



lursail guztien antolamendu zehatza biltzen dauen dokumentua.

Hona helduta, herritarrek parte hartzeko epea zabaldu da, eta

mungiarrek alegazioak aurkeztu leikiez erregistro orokorrean. Prozesu hau bagilaren 18ra arte egongo da zabalik.



Toda la documentación del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) se puede consultar en:

- www.mungiaplanorokorra.eus
- Dependencias municipales, de lunes a viernes, de 9:00 a 14:00 horas.
- Del 28 de abril al 9 de mayo: Torrebillela acogerá la exposición de los planos

Además:

- Presentación del documento: 29 de abril a las 18:30 horas en Olalde aretoa.
- Sesiones de debate: 13 y 20 de mayo, a las 18:00 horas, en Olalde aretoa.
- Consultas y dudas al equipo redactor: 13, 20 y 28 de mayo, de 10:00 a 13:00 y de 15:30 a 17:00 horas, en la sala de exposiciones del Ayuntamiento (en el SAC o en el o10 con cita previa).

¡Participa!

Más información en www.mungia.eus y www.mungiaplanorokorra.eus

Mungia, motor del crecimiento económico y de la innovación empresarial en Mungialdea



Mungia se consolida como tractor comarcal, con un crecimiento sostenido y una apuesta clara por la dinamización empresarial. Así lo reflejan los últimos datos económicos, mostrando un entorno atractivo para la inversión y el desarrollo profesional. Alberga el 69,51 % de las empresas de la zona, destacando su peso en el sector industrial con un 83,33 % de la industria comarcal. El desempleo, del 8,26 %, refleja una recuperación similar a los niveles previos a la crisis de 2008.

Por su planificación ordenada y sostenible, Mungia y Mungialdea logran un desarrollo equilibrado, evitando procesos

de industrialización abrupta que afectan a otras zonas de Bizkaia. Este crecimiento apoyado en la calidad ambiental y en la disponibilidad de suelo no contaminado, favorece la instalación de nuevas empresas en nuestros polígonos.

Mungialdeko Behargintza, en colaboración con el Ayuntamiento de Mungia, juega un papel clave a través del nuevo Plan Estratégico 2025, diseñado para fortalecer la industria y los servicios conexos. Apostando por la digitalización, la sostenibilidad y la internacionalización de empresas locales.

Mungia ocupa una posición estratégica en el crecimiento empresarial en Bizkaia. Combinando talento, suelo de calidad y una administración comprometida. Es el lugar idóneo para el desarrollo de proyectos empresariales, además de las 928 que ya trabajan en Mungia.

Langabezia-tasea % 8,26koa denez, 2008ko krisiaren aurretiko mailen antzekoa da, eta udalerria lanpostuen sorrerako nahiz egonkortasun ekonomikoko erreferente moduan sendotu da.

HAZILAN+ proiektua jarri da abian



Unibersidadeko edo erdi-mailako edo goi-mailako titulazioa daukienei laneratzeko trebetasunak hobetzen laguntzea da helburua. Holan, bada, aurten, 8 parte-hartzaile izan dira amaitu ostean beka ordainduak lortu dabezanak.

Las 8 personas participantes se encuentran realizando becas remuneradas.

Mungia conecta a 30 empresas locales para el intercambio de conocimientos

30 enpresarentzako topaketea antolatu da, jakintzak truketako eta euren arteko lotunea sustatzeko. 'Match Mungia' proiektuaren barruan dago kokatuta, eta, aurten egingo diranetatik, lehenengoa da.

Mungialdeko Behargintza organizó el primer encuentro de 2025 dentro del proyecto *Match Mungia* en el mes de marzo. La sesión tuvo lugar en el Ayuntamiento de Mungia y reunió a 30 empresas locales. El tema central fue la gestión del talento, los retos de los departamentos de recursos humanos y la adaptación al cambio. Diversas expertas y expertos compartieron sus experiencias, ofreciendo una visión integral sobre la gestión de personas. El encuentro concluyó con una mesa redonda y reuniones bilaterales. El objetivo fue fortalecer las relaciones entre empresas locales y fomentar futuras colaboraciones empresariales, comerciales o de otro tipo.



Mungia Indartzen: Mungibonoa eta Musikaz Blai



Se vuelven a destinar más de 100.000 euros al programa *Mungia Indartzen* para incentivar el consumo local y dinamizar la hostelería.

Aurten bere, udalak 79.300 euro erabili dauz apirilean egindako Mungibonoaren kanpainarako; eta 21.700 euro, Musikaz Blai programarako. Mungibonoan, 77 saltokik parte hartu dabe, eta 7.930 bonu emon dira. Bestetik, Musikaz Blai programeari jagokonez, barritasun asko dagoz, aurten udabarrian eta udagoienean garatuko dalako. Holan, bada, bariku ilundeetan, 20:00etatik aurrera, kaleak musika-emonaldiz beteko dira gure ostalaritzea dinamizetako asmotan.



Nuevos cursos en Mungialdeko Behargintza

Mungialdeko Behargintza pone en marcha una nueva oferta de cursos de formación.

CURSO	NÚMERO DE HORAS	FECHAS	DÍAS	HORARIO	DÓNDE	PART.
1 RECUALIFICACIÓN EN COMPETENCIAS DIGITALES	32	DE MAYO A JUNIO	DE LUNES A VIERNES	09:30 - 13:30	MUNGIALDEKO BEHARGINTZA	12
2 RECUALIFICACIÓN EN COMPETENCIAS DIGITALES	32	OCTUBRE	DE LUNES A VIERNES	09:30 - 13:30	MUNGIALDEKO BEHARGINTZA	12
1 CURSO DE UTILIZACIÓN DE CARRETILLA ELEVADORA	20	MAYO	DE LUNES A JUEVES	09:30 - 14:30	LOIU	12
2 CURSO DE UTILIZACIÓN DE CARRETILLA ELEVADORA	20	OCTUBRE	DE LUNES A JUEVES	09:30 - 14:30	LOIU	12
1 CURSO DE UTILIZACIÓN DE LA GRÚA PUENTE	20	MAYO	DE LUNES A JUEVES	09:30 - 14:30	LOIU	12
2 CURSO DE UTILIZACIÓN DE LA GRÚA PUENTE	20	OCTUBRE	DE LUNES A JUEVES	09:30 - 14:30	LOIU	12
CURSO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES EN ACTIVIDADES DE METAL Y CONSTRUCCIÓN	60	JUNIO	DE LUNES A VIERNES	DE MAÑANA	MUNGIALDEKO BEHARGINTZA	12
CURSO DE MONTAJE DE ANDAMIOS	60	OCTUBRE	DE LUNES A VIERNES	DE MAÑANA	MUNGIALDEKO BEHARGINTZA	12

Mungialdeko Behargintzak prestakuntza barriak jarriko ditu martxan: gaitasun digitalak, orga jasotzailearena eta zubi-garabiarena, metalaren eta eraikuntzaren sektorerako lan-arriskuen prebentzioa, besteak beste.



Gamiz bidea 32
Tel. 94 615 62 44
www.mungialdeko-behargintza.com

Éxito del programa MUNGIA ON! entre nuestras empresas

Con el objetivo facilitar el desarrollo de competencias digitales a las empresas, Mungialdeko Behargintza puso en marcha el programa *Mungia ON!*, que está siendo todo un éxito. Se están desarrollando diferentes talleres destinados a dar a conocer herramientas prácticas digitales para los negocios de la zona.

El programa *Mungia ON!* está teniendo muy buena acogida entre las empresas de la comarca.

Mungia ON! programeak arrakasta handia lortu dau eskualdeko enpresen artean. Martian, adimen artifizialaren inguruko ibilbidea egin da.

MUNGIA ON
Etorkizuneko negozioak eraikitzen
Construyendo negocios del futuro



Bardintasuna lantzen: M8 Andren Nazinoarteko Eguna



Udalak bat egin eban M8 Andren Nazinoarteko Egunagaz, eta herritar guztiak gonbidatu zituan ekintzetan parte hartzen: Mungiako andren alkarteek eta mobimentu feministak antolatutako manifestazino eta konzentrazioan, eta osteko dantzan, besteak beste.



Autodefensa feministarako tailerrak.

Mungart Alkarteak Andra Sortzaileen III. Artisau Azokea antolatu eban Udalaren laguntzaz.



Ohikoa dan lez, omenaldia egin jaken andra baserritarrei.

☞ Durante el mes de marzo, Mungia conmemoró el Día Internacional de las Mujeres con actividades destinadas a reivindicar su papel.



Diz-Diz Andran Alkarteak 30. urteurrena ospatu eban.

Bardintasunerako bidean programea aurrera doa



Ikasturteko akabuko hiru hilekoan, bardintasuna eta indarkeria matxistearen prebenzioa landuko dira udalerriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

Askeak, errespetuzkoak, bardintasunezkoak zein anitzak diran jokabideak, eta bortitzak zein matxistak ez diran jarrerak transmititzeko gai diran erreferenteak sortzea da helburua.

Holan, gazteekaz hausnarketarako prozesu parte-hartzaileak sortuko dira, eta indarkeria matxisteari aurre egingo jako jokabideen eraldaketaren bidez.

☞ El objetivo es transmitir actitudes que permitan enfrentar la violencia machista transformando sus comportamientos.

El Ayuntamiento está desarrollando un estudio sobre las situaciones de soledad no deseada en Mungia

El estudio busca identificar y comprender las causas y consecuencias de la soledad no deseada entre las y los mungiarras de todas las edades. El proceso cuenta con la participación activa de la comunidad (asociaciones, profesionales del ámbito de los servicios sociales y de la salud, agentes sociales, comercios, policía local, centros escolares, y personas que trabajen en el ámbito de la juventud). Se está desarrollando en varias fases, utilizando herramientas como: encuestas, talleres comunitarios, grupos focales, etc.

El diagnóstico será la base para desarrollar un plan que comprenda una serie de acciones para prevenir y paliar esta realidad en nuestro municipio.



☞ Udala hasita dago gura bako bakardadearen ganeko partehartze-azterketa egiten.

Guraso Eskola arrakastatsua



☞ Éxito en la 8ª edición de "Guraso Eskola", participando 38 personas que han trabajado contenidos como son las normas y límites, la inteligencia emocional, la comunicación, la prevención de los consumos, la sexualidad o relaciones afectivas.

Guraso Eskolearen zortzigarren edizioa zemendian jarri zan abian, eta 38 lagunek parte hartu dabe bertan. Seme-alaben edadearen arabera antolatutako era bateko eta besteko moduluak eskaintzen dira bertan. Modulu horreetan, 12na saio egiten dira, honako gai honeekaz zerikusia daukien eukiak lantzeko: arauak eta mugak, adimen emozionala, komunikazioa, konsumoen prebenzioa, sexualidadea eta hartu-emon afektiboak. Haurtzaroan eta nerabezaroan adituak diran psikologo bik emoten dabez saioak.

Eskola Kirola Euskeraz



2023an ekin jakon programa honi, umeentzat hain garrantzitsua dan eskolaz kanpoko arlo hau euskeraz eskaintzen dala bermatzeko asmoz. Bertan, bederatzita taldek parte hartzen dabe: 5 guraso-alkarte (guztiak) eta 5 kirol-alkarte (atletismoa, errugbia, igeriketea/waterpoloa, pelotea eta saskibaloia). Kirol-alkarteek, guraso-alkarteek eta udalak argi eta garbi daukie lantzen segidu beharreko esparrua dana. Hori dala eta, aurrera egingo dabe, Mungiako Eskola Kirola euskaldunagoa izan daiten.

1 Ekimen honek lau lan-ildo jorratzen dauz:

- **Prestakuntzea (2023, 2024):** kirol-psikologiari buruzko ikastaro bi eta eskola-kiroleko entrenatzaile laguntzaileen ikastaro ofiziala (eurotako bat Aldundiak ordainduta).
- **Jarraipena (2024):** galde-sortea pasatu zan hiru ikastetxetan eta kirol alkarte batean. Horren ganera, behaketak egiteko proposamen bat bere aurkeztu da.
- **Jarduketak (2025):** martian hasi dira hizkuntza-ohiturak aldatzeko esku-hartzeak hiru klubetan (errugbia, pelota eta atletismoa), KEEs metodologia erabilita.
- **Sensibilizazioa:** 2023an gurasoentzako bideoa kaleratu zan, eta, 2025ean Euskaraldiko ekintza bateratua egingo da.

☞ *Eskola Kirola Euskeraz surge de la necesidad de ofrecer al alumnado la oportunidad de vivir en euskera fuera de los centros educativos.*

Mungiarrak pozarren dagoz Kirol Sailak antolatutako jarduera ugariko ikastaroakaz



Tel. 94 674 34 12
kiroldegia@mungia.eus



Erabiltzaileen beharrianakzeintzuk diran jakiteko asmotan, Udaleko Kirol Sailak inkesta digitala jarri eban abian, eta, emaitzen arabera, jentea pozarren dago jeneralean. Ekimenak partaidetza handia euki dau, eta nabarmentzekoa da ehuneko handi batek ondo baloretan dauala jardueren eskaintzea, baita jarduera horreek gidatu dabezan begiraleak bere.



☞ *Satisfacción entre las y los mungiarras con los cursos de multiactividad organizados por el área de Deporte.*


Herri solidarioa gara



Mungia sigue colaborando activamente con el país africano de Benín a través de la fundación “Vida para todos”, con la que trabaja desde hace 20 años.



El Consistorio ha financiado diversos proyectos de cooperación como un hospital en la zona más pobre de Benín.



Mungia donó más de 3.000 euros a través del Erroso Solidarioa para las personas afectadas por la DANA de Valencia. A través de la venta de roscón y chocolate caliente se recaudaron 1.527 €, cantidad que el Ayuntamiento duplicó, siendo la cantidad final a donar 3.054 €.



Almuerzo solidario en el Basatoste a favor de la asociación de cardiopatías congénitas de corazón.

Bide-sare seguru eta erosoagoa bermatzen

Udalak 750.000 € baino gehiago inbertidu dauz igaz, erdialdeko eta auzoetako kaleak eta bideak asfaltetako, besteak beste.



Ya están en marcha los trabajos de asfaltado de 2025. Se destinarán 800.000 €, que también servirán para mejorar la señalética horizontal.



Avanzan las obras de urbanización en Berteiz kalea



Se ha ampliado la acera y mejorado las infraestructuras de servicios, para garantizar un entorno más seguro y adaptado. En estos momentos, se está ya asfaltando. Se han invertido 75.577,71 euros.

75.000 € baino gehiagoko inbersinoa egin da Berteiz kalea asfaltetako eta irisgarritasuna hobetzeko.

250.000 €-tik gorako inbersinoa Mungiako irisgarritasuna hobetzeko



Berteiz kaleko lanetatik aparte, baranda barriak jarri dira Paladon, Andra Mariko behea aldatuko da eta mobikortasun urrikoentzako lau aparkaleku barri egingo dira anbulatorioan.

Más de 250.000 € para mejorar la accesibilidad en el municipio.



Kirol-instalazinoak barritzen eta hobetzen



Kirola eta jarduera fisikoa sustatu eta danon gozamenerako kalidadeko gune seguru baizen irisgarria bermatu gurean, Udalak hobekuntza-lanak egin dauz, kirol-instalazinoak barritzeko eta hobetzeko.



Mungia inverte más de 250.000 euros en la mejora de instalaciones deportivas para seguir fomentando el deporte y la actividad física.

Landetxo Goikoa barritzeko proiektua esleitu da

Landetxo Goikoak bere museo- eskaintzea barrutuko dau oso-osorik. Proiektua esleitu da, eta goitik behera aldatuko dau erakusketea. Horretarako, zentzumenezko baliabide barri erakargarriagoak erabiliko dauz, beti-beti irisgarritasuna kontuan hartuta. Edade guztietako lagunentzako esperientzia izango da, eta urte osoan egongo da abian. Udalak 295.000 €-ko inbersinoa egingo dau, eta Next Generation fondo europarren dirulaguntzea jasoko dau horretarako.



El Ayuntamiento adjudica el proyecto para la renovación de Landetxo Goikoa con una inversión de 295.000 euros.

200.000 euros para seguir mejorando la eficiencia energética

Además de sustituir farolas en las calles por las de LED, se invertirán más de 200.000 euros en Agirre Jauregia y Mugire Txokoa en favor de la eficiencia energética.



200.000 euro udal-erakinetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko.

Etxean energia aurrezteko jardunbide egokiak



Mungia edukiontziak antolatzen dabil barriro

Herritarrentzat birziklapena bultzatzen eta errazten jarraitzeko, eta udalerriko segurtasuna hobetzeko, Udala edukiontziak bateratzen eta berrantolatzen dabil, bai auzoetan, bai hirigunean.

Edukiontziak hondakin-frakzino guztiak daukiezan multzoetan batzen dira, kasu gehienetan auzoetan; baina erdialdean bere bardin egingo da.


Ganera, Oraintsu suak hartu dauzen edukiontzien gertakarien aurrean, kokaleku batzuen arriskugarritasuna aztertzen dabil Udala, eta edukiontziak birkokatzen eta berrantolatzen hainbat puntutan.



El objetivo es centralizar los contenedores en islas para todo tipo de residuos, para tratar de minimizar los riesgos que puedan surgir.



Auzotaxi Zerbitzua Mungian



Servicio de taxi, a precio reducido, para acercar al centro urbano a las personas empadronadas en los barrios rurales de Mungia.

¿Para quién?

- Personas mayores de edad empadronadas en barrios de Mungia.
- Personas que tengan de 15 a 18 años que estén empadronadas en barrios de Mungia. (Necesitarán la autorización expresa de madres, padres o quien ostente su tutoría legal).

Horarios del servicio:

- De lunes a viernes: 7:30-20:00 horas
- Sábados: 9:00-14:00 horas
- Domingos, festivos, y durante el mes de agosto: no hay servicio.

¿Cómo funciona?

- Mediante bonos de 10 trayectos que se adquieren en el SAC (Ayuntamiento).
- El límite máximo es de 150 trayectos al año por persona usuaria.

Precio de los bonos

- Los primeros 50 trayectos, 2 € por viaje.
- Del trayecto 51 al 100, 6 € por viaje.
- Del trayecto 101 al 150, 8 € por viaje.

Teléfono de contacto: 94.655.87.04

Egunero herria jagoten eta mantentzen



Atxurizubi barrituta.



Udalerriko estetika jagoten.




Margotze-lanak Matxin Plazan.



Mantentze lanak Skate Parkean.

Jagon daigun gure herria!



Seguimos padeciendo actos incívicos que deterioran nuestro municipio y repercuten directamente en la economía de todas y todos. Pintadas, rotura de mobiliario urbano y robo de cableado. Esto afecta negativamente a la convivencia y bienestar, deteriorando la imagen de Mungia y aumentando el coste para las arcas municipales. Es responsabilidad de todos y todas trabajar para erradicar estas acciones.

Jagon daigun gure herria!

Badator Euskaraldia maiatzaren 15etik 25era!



Martiaren 14an egin zan Andra Marin aurtengo Euskaraldiaren aurkezpen-ekitaldia. Izan bere, hurrengo egunean bertan zabaldu zan Euskal Herri osoan izena emoteko epea.

Euskaraldiak euskaldunok geure hizkuntza-ohiturak aldatzea eta, holan, euskeraz gehiago berba egitea dauka helburu. Kontua ez da euskeraz jakitea edo ulertzea, erabiltea baino. Oraindik sasoiz zabilz izena emoteko, etorri edo deitu:

i Mungiako Euskaraldia

Alkartasuna kalea 6

Astelehenetik barikura: 18:00-20:00

Zapatuetan: 11:00-13:00

Tel. 688 74 51 09.

Aurton bere, Euskal Liburuen Azokea Mungian!



Mungia urtean zehar egiten diran Euskal Liburuen Azoken kanpainako lehenengoa izan da. Aurton, "Urtemugak: Lauaxeta eta Aresti" erakusketa antolatu dogu, berbaldiak bere egin dira eta Itxaso Martín ideazleak "Punto bobo" liburua aurkeztu dau Torrebillelan.



Erromerian, huts egin ezineko paradea

Foruen plaza dantza tradizionalaren topagune moduan berreskuratzeko asmotan, joan dan urtean "Erromerian" ekimena jarri zan abian. Hileko akabuko barikuetan, topaleku ederra mungiar bahiz bisitarientzat.



Hurrengo hitzorduak:

Apirilak 25

Maiatzak 30



Olalde aretoa: mungiar eta bisitarientzako kultura-alkargunea

2025ean bere, Mungiak kalidadeko kultura-programazino egonkor eta ugariaren alde egingo dau Olalde aretoan. Antzerkiaren, dantzearen zein musikearen arloko ikuskizunak eskainiko dira, eta, bertan, euskal konpainiak eta euskerako produktzioak izango dira nagusi. Aurton orain arte Olalde aretoan egin diran 13 ikuskizunak dira horren erakusgarri; kasurako, Doctor Deseoren kontzertua, eta "Elara, bidaia bat izarretara" haur antzezlan, besteak beste.

Olalde Aretoa es referente cultural para mungiaras y visitantes gracias a la calidad de su oferta.



Mungirock aretoa Mungialdeko musika erreferentzia



Jende ugari Mungiako XVIII. Landara Azokan



Urtero lez, landare eta nekazaritzako makina eskaintza zabalaz ganera, edade guztietarako tailerrak eta zozketak izan ziran.



La 18ª edición contó con numeroso público, que participó en los talleres organizados por el Ayuntamiento.

Maila handiko kirol-probak Mungian

Las pruebas de Mungiako Duatloia y Lau Haizeta Trail se han consolidado en el calendario competitivo. De esta manera, ya es habitual contar con deportistas de primer nivel en nuestro municipio.

Lehen mailako probak euki doguz geure herrian: Mungiako Duatloia XVI. edizinoa eta IV. Lau Haizeta Traila, hain zuzen bere.



SAN PEDRO JAIK 2025

BIALDU 2025EKO SAN PEDRO JAIETARAKO
DAUKAZUN PROPOSAMENA
ENVIA TU PROPUESTA PARA LAS FIESTAS SAN PEDRO 2025

Aurtengo San Pedro jaietarako proposamenik badaukazu?
¿Tienes alguna propuesta para las fiestas San Pedro de este año?

Idatzi helbide honetara Escribe a esta dirección:
jaiak@mungia.eus



Mungiaiko Inauteriak-2025: itzelak!



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



ARGITARATZAILEA:
MUNGIAKO UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16
komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus

ALE KOPURUA: 7.000 • LEGE GORDAILUA: BI-2224/2012

